

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak laguntza deialdia egin du, 2011-2013 aldian ehiza-barrutiak hobetzeko

Deialdian diru-laguntzak jasotzen dira, nekazaritza-lurren mugetan eper gorriaren habitata sustatzeko

Martes, 02 de agosto de 2011

Abuztuaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) [ehiza-barrutien titularrei laguntzak emateko deialdia](#) onartzen duen foru agindua argitaratu zen atzo. Haren helburua da 2011-2013 aldian nekazaritzari kalteak egitea saihestea eta espezie zinegetikoen habitata hobetzea.



Barcina Lehendakariaren eta Goikoetxea kontseilariaren bilera Nafarroako Ehiztarien Elkarteko (Adecana) ordezkariekin.

Deialdi honen nobedade nagusiak hauek dira: batetik, urte anitzekoa dela (horri esker, barrutien titularrek diruz lagundutako neurriak hiru urteko aldian zehar gauzatzeko aukera izango dute); bestetik, Nafarroako hegoaldean eper gorriaren habitata sustatzeko sartutako neurriak. Hartarako, espezie zinegetiko horri aterpea eta elikagaia emateko, erein, uztatu edo lastoa jaso gabe geratuko diren nekazaritza-lurren mugetan bandak sortuko dira.

Diruz lagunduko diren beste jarduera batzuk hauek izango dira: hesi fisikoak eta usain eta soinen bidez uxatzeko sistemak sortzea, espezie zinegetikoak soroetan ez sartzeko, sastraka kentzea, ereitea ehizarako eta barrutietan uraskak eta putzuak sortzea, habitat zinegetikoa hobetzeko.

Ehiza-barrutietan gauzatutako ekintzen kostuaren % 40 eta % 50 artean [diruz laguntzen du Nafarroako Gobernuak](#), deialdiaren helburuetarako: laboreak babesteko eta habitat zinegetikoa hobetzeko. Urte honetarako laguntza-eskaerak irailaren 15 baino lehen aurkeztu beharko dira. Egun horren ondoren aurkeztutakoak 2012. urtean bideratuko dira.

Uztailaren 21ean, Nafarroako Lehendakaria, Yolanda Barcina Angulo eta Landa Garapen, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu, Nafarroako Ehiztarien Elkarteko (Adecana) lehendakaria eta idazkaria diren Carlos

Irujo Beruete eta Jesus Irazola Ursuarekin [bildu ziren](#), eta Nafarroako Gobernuaren politika zinegetikoaren nondik norakoak azaldu zizkieten. Bileran eper gorria berreskuratzeko ekintzan egin behar zirela adierazi zuten; deialdian jasotzen direnak bezalakoak, hain zuzen.

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako [laboreak babesteko neurriei](#) esker, espezie zinegetikoek nekazaritzari egindako kalteak erdira murriztu dira.